

TALAIAN

**Murrizketak,
fiskalitatea eta enplegua**

Euskal Herrian, Espainian eta Frantzia modako hitza da "murrizketa sozialak", baina batzuek beste modu batez leundu nahi dute, "doikuntzak" deituz. Larriena da murrizketa gehientsuenak hauteskunde ondoan iragarri direla Hego Euskal Herrian eta Espainian, ordura arte hautesleei asmo horiek ezkutatu. Amarru demokratikoa da. Kataluniako Gobernuak egin zuen, Patxi Lópezen Gobernuak egin du eta Nafarroako, Espainiako, Frantziako eta Europako gobernuek ere egingo dute. Denak belaunikatzen dira merkatu famatuaren aurrean, eta hautesleentzietatik igaro ez diren horiei uzten diete herri edo estatu bakoitzeko politika zuzentzen. Murrizketak handik eta hemendik, merkatuei ordaintzea bermatzeko.

Lópezen Gobernuak "100 milioi euroko aurrezpena langile gastuetan" iragarri du. Horrek esan nahi du, sindikatuak salatu moduan, lan eskubideen galera ekarriko duela eta krisi honetan ardurarik ez dutenei eragingo dietela murrizketek. Lanpostuak sortzea beharrezkoa denean, Administrazioak kate-maila ahulenean erabiliko ditu guraizeak, langileenean alegia. Eta ahaztu zaizkio enplegua sortzeko benetako gakoak: aberatsenak gehiago ordaintzea; enpresa etekinei zergak igotzea; gastu militarrik albo batera uztea; eta Hego Euskal Herrian dagoen iruzur fiskal milioioiduna azaleratzea —urtean 13.000 milioi euro baino gehiago—. Foru Aldundiek formula eraginkorrek bilatu beharko lituzkete azken honetarako, bide hori jorratzeko interes askorik ez dagoela dirudien arren. Horrela enplegua sortu liteke, eskubide sozialak mantendu eta diru-sarrera fiskal gehiago lortu zorra ordaintzeko. Lópezek, langileei murriztu beharrean, eredu izan beharko luke, eta bere soldatari eta bizi osorako pentsioari uko egin. Gainerako agintari, politikari, diputatu eta senatariek berdin egin beharko lukete.



Juan Mari Arregi

Baionako brigada

BEA SALLABERRYK eman digu ekimen honen berri. Baionako erdigunean, merkatuan, larunbat goizetan erosketak egiteko ohitura duten lagun batzuk elkar-tu dira. Hamar bat lagun dira, Sallaberryk adierazi digunez, batzuk euskara ikasten ari dira, beste batzuk aspaldi ikasi zuten eta euskalgintzako batzuk ere badira. Oraingoz helburua xumea eta zehatza da: beti bezala merkatura joango dira erosketak egitera, baina elkarren babesean euskaraz egingo dute ahal duten guztietan. Horrela, euskaraz egiteko gai diren saltzaileak identifikatuko dituzte. Oraingoz horretan hasiko dira, nahiz eta bestelako ekintzak bururatu zaizkien, hala nola, euskaraz ari diren saltokiak zerrendatzea, euskaraz ari ez direnei euskararen beharra azpimarratzea eta abar.

Filmazpit

EUSKO JAURLARITZAK euskarazko azpitoluak dituzten filmen katalogoa osatu nahi du batetik, eta bestetik, datu basea. Biei buruzko informazioa www.filmazpit.eu-en jaso du. Jaurlaritzak kultur programatzaileak, euskaltegiak, udalak eta zineklubak ditu gogoan, besteak beste. Eragile horiek, programatu nahiko lituzketen filmak eskatuko dizkio-te Jaurlaritzari eta honek jatorrizko bertsioan dau-den pelikulei azpitoluak jarri eta filmak itzuliko dizkiete. Egile eskubideak Jaurlaritzak kudeatuko ditu eta eragileek doan eskaini beharko dituzte filmak. Katalogoa batetik, eta datu basea bestetik. Euskal Herriko hainbat zinemalditan jada filmak euskaraz azpitolatuta dituzte. Jaurlaritzak horiek denak datu-basean bilduko ditu. Horiek erabiltze-ko ordea, egile eskubideak filmen jabeekin nego-ziatu beharko dira.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

**Atxaspi Hotela**

Bittiria 24
Lesaka (Nafarroa)
T 948 637 536

hotela@atxaspi.com
www.atxaspi.com